

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA 1995eko maiatza



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

**HERRI GUZTIAK HARTU ZUEN
PARTE ASENTZIO EGUNEAN**

Maderas Gallastegui, s.a

MENDI UZTIAKETA ETA SERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

HANKAPALOAK NOIZ?

Hankapaloari buruzko kezka edo haserrea agertu nahi nuke Hankapaloak jarri zituzten eta oso ondo, baina gero zer gertatzen da? Lehenengo, egunak aldatu, gero, astelehenean etorri bai, baina, eurak kanpoan jarrita hitzegiten eta ni behintzat, zer egin behar genuen jakin gabe. Gero, azteazkenean denok zain eta inor azaldu ere ez, gure kontura. Itxura denez, guk bakarrik ezin dugu ezer egin, ez dugulako permisori ez giltzarik. Orduan zer? Nere iritziz behintzat, ekintza bat hasi ezker, egin behar den bezala, bestela ez hasi. Ez duzue uste horela hobe dela?

Denok nahastu eta gero garbirik ezer ere ez!

Jessica

Elgetako jaietan, *Goibekokaleko* txozna zabalduko dugu. Gure asmoa turnoak egitea da, denon artean errezago moldatuko baikara. Lanerako gogorik baduzu, atea zabalik dauzkazu.

Bestalde, apirileko alea beranduago aterako dugu, Elgetako jaiak eta gero. Honen arrazoia Elgetako jaietara berezi bat gordezea da. Ordurarte beraz, gutxi gastatu eta ondo izan.

Goibekokaleko erredakzio kontseilua

ESKERRIKASKO

Denon artean lortu dugu Asentsio eguneko erromeria berreskuratzea. EGAK eskerrak ematen dizkizue era batera edo bestera lagundu duzuen guztioi, laguntza hori barik ezin izango baitzen jai aurrera atera.

Aurten egon diren hutsegiteak zuzentzen aileginduko gara. Gu datorren urterako prest egongo gara. Bitartean beste hainbat ekintzekin aurrera joko dugu.

Eskerrikasko.

Elgetako gazte asanblada

ELGETAKO AITON-AMONA ETA NAGUSIEI

Badugu bai zer ikasi eta berreskuratu zuengandik. Elgetarren ohiturak ahoz-ahoz, aitona-amona edo nagusien bidez jakitzea beharrezkoa da, ahaztu ez gaitzen. Hainbat kondaira, historia, jai eta erromeri, gudako pasarte... galtzen ari dira. Batzuk kontatu ez eta beste batzuk entzuten ez dugulako.

Aldizkari honek egin dezakeena mugatua bada ere, honen aldeko apustua egin nahi du. Historia eta ohituren berreskuratzea bultzatu alegia. Elgetar gazte eta ez hain gazteak ezer gutxi dakigu gertatu ziren aspaldiko gorabeheri buruz; eta hau neurri handi baten zuten esku dago.

Guk ere, kontatu nahi ditugu gure aitona-amonen historioak, haien usadioak, eta ez dugu ahaztu nahi.

Beraz, dakizun horrek, kontatuz zure iloba edo inguruko norbaiti, eta nork entzun ez baduzu, dudarik gabe, hemen gaude gu prest.

Zure esku dago, herri honen memoria ez galtzea.

Ana Gillegi Etxeberria

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zure eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzera ez da inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita.

GOIBEKOKALE

Itaratzaila: *Goibekokale* aldizkaria. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. Laguntza berezia: Elgetako Gazte Asanblada eta Ortea. Koordinatzailea: Ana Gillegi. Erredakzio kontseilua: Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, or Gallastegi. Erredaktoreak: Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. Euskera arduraduna: Iban Aranzabal. Argazkien erregelazioa: Txuri-Beltz argazkizale taldea. Komikia: Igor Arizmendiarieta. Horroroskopoa: Aitor Ubea. Elgetako kolaboratzaileak: Agurne Benedikto, Xabat Leanizbarrutia, Jabier Aranzeta. Administrazioa: Esti Retolaza, Susana eta besteak. Banaketa: Ikastola. Tirada: 400 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubillaga Oñati). Copyright-a: *Goibekokale*. Dailua: SS-475/95

Goibekokale ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Elgetako Herri Eskola

Nire txanda heltzerakoan, Elgetako eskolako guraso legez idaztera noa.

Gaur egun dugun eskola, eta ez noa orain eraikuntzari buruz hitz egitera, gure aurretik egon direnen fruitua dela iruditzen zait, baita guraso, irakasle, ikasle eta Elgetako beste herritar askorena ere.

Euskera eta orokorrean gure kulturarako gaurkoak baino sasoi okerragoak zirenean, Ikastola bat martxan jarri baitzuten eta pausoak ematen jarraitu gaurko Herri Eskolara heldu arte. Guztiei nire eskerrik beroena.

Ondoren beste batzuk etorri gara haienleku-koa hartzera, eta gure ilusio guztiarekin, Herri Eskolaren alde lan egitera, azken batean gure seme-alaben onerako izango da eta.


Hemendik aurrera lan asko geratzen da egiteko; alde batetik LOGSE dela eta: Zer gertatuko da Elgetan? Noiz arte jarraituko dute bertan? Nora joan beharko dira? Egun guztia etxetik kanpora bota beharko dute? eta abar luze bat. Beste aldetik eskola berria dela eta: prest egongo da irailan bertan hasteko? Azken momentuko arazoei aurre egiteko prest al gaude?

Kurtso hau bukatzeaz dago, laster izango dugu urteko guraso bilera. Parte har dezagun denok, bertan lor dezakegulako Eskolari buruzko informazio zuzena, gure kezkak azaldu, gure ideiak planteiatu eta denon artean eztabaidatu behar direnean erabakiak hartuz.

Eskola denona da eta lehen bezala, orain ere denok parte hartu behar dugu, bakoitzak bere neurrian. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut horretarako, ez dezagun gal ilusioa eta lanean jarrai dezagun kalitatezko eskola euskaldun baten alde.

Ea datorren kurtsoan, eskola berrietan hasteko, gu ere indar berriekin hasten garen aurrean ditugu erronkei aurre egiteko.

Agurne Benedikto



Denokgara MalcomEGA

Gazte gara gazte... eta gazte izan zaretenok ere aukera bikaina duzute lehen pasatutako momentu eta egoera ahaztezinak gurekin bat gogoratzeko. Ez dugu ez handinahirik ez mugarik; gure

ekintzak herriko jendeari zabaltzea besterik ez da gure nahia. Herri honek gazteok hemen gaudela konturatzea beharrezkoa zaigu. Ez dugu nahi larrosarik ez dominarik, elgetarron onarpena eta partaidetza nahikoa dira orain dela gutxi hartutako urratsak jorratzeko.

Lehen emaitzak nahiko positibo eta nabarmenak dira. Gehienak parteartzaile nahiko pasiboak gara eta noizean bein bakarrik hartzen dugu ardura apurren bat, baina, atak denontzat zabalik daude ez dago ideologi, sexu edo adin, diskriminazio edo faboritismorik. Hori da behintzat funtzezkoena, denok batera aurre egiteko.


Gazte denbora atzean utzi duzutenak ere lekua duzute, gainera, uste dut beharrezkoak zarete, zuek ere Elgetako gazte izan baitzarete. Gaur eguneko seme-alabok ez dugu protagonismoa bilatzen baina bai mugimendu eta akzio libertate margen bat, inor zapaldu edo intimidatzeko asmorik gabe ez geratu atzera begira egin beharrekoa aurrean duzu, batzuk konprometitu dira eta lanean daude. Geratzen garenok ere ausartu gaitezen.

Egindakoa eginda dago eta egitekoak egiteko, lortu arte beraz leporarte gara bustiko. Ez dugu lege berririk inposatu nahi, eta hemen gaude gure lanon emaitzen zain. Hauxe egoera larria: gazteengan konfidantzarik ez edukitzea benetan tamalgarria. Nork ase gure nortasun egarria?

Txalaparta, dantza, Goibekokale, jaia eta Asentzio bilakatu dira gure azalpen medio. Noiz hartuko gaituzte serio?

Xabat Leanizbarrutia

KOMIKIA



ASENTZIOKO "ERROMERIXIA".

Festa eta jai giroa nagusitu ziren igandean, Asentzio eguna zela eta. Gazte Asanbladak antolatuta eta herritarren laguntzarekin, elgetarrak eta kanpoko hainbat jende biltzea lortu zen ermitaren eta lakuaren inguruan. Asentziko historiari buruz panel informatiboak, taberna, bazkarirako mahaiak, bolo txapelketarako bolatokia... dena prest jaiari hasiera emateko.

Goizeko 11etako etxaflerak eta trikitalariek egunari hasiera eman zioten. Oinez eta eguraldi bikain batekin gorantz igotzeari ekin zioten haur, guraso eta nagusiek. Bertara heldutakoan, txikienek kainabera eskuetan, arrainak arrantzatzen parte hartzen zuten bitartean, gurasoek bazuten salda eta txorizoa jateko aukera.

Herri bazkariko txartelak agorturik zeuden (100 pertsona) eta famili eta lagun kuadrilek bazkari eta mahaiekin joan behar izan zuten, pagadien itzalean mokadutua jatera.

Tripak hasetu ondoren, dantzarako ordua erromeriarekin. Dantzaldi bikaina izan zen arratsalde partean eta aintzinan bezala ospatu zen Asentzioko eguna, lagun artean eta humore onean. Goizetik bolo txapelketan hasi zirenak ere, jokoan jarraitu zuten arrats osoan zehar. Eguraldia bitarteko, iluntzerarte luzatu zen festarako gogoa.

Berpiztu berri den egun honek adineko askoren burura dakar garai bateko jai eta gazte denborak. Ia galdutako ohitura hauek berreskuratzen eta elgetar kontzientzia bizirik irauten laguntzen dutenei animoak eta eskerrak.



Elgetako neska ederrak erromeriara bidean.



Eguraldiak lagunduta, jendea gustora ibili zen antolatutako ekintzetan.


OSTATU
JATEKIA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

Erosle

M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

HURRENGO LAU URTEETAN, EAJ-K 5 ZINEGOTZI IZANGO DITU ETA HB-K 2

Maiatzaren 28an, udal eta batzar nagusietarako hauteskundeak egin ziren. Parte hartzea zertxobait bajuagoa izan da.


Hautesleen kopurua 1991an eta aurten berdina izan da 818 hain zuzen ere. 1991an udal hauteskundeetan, 591 pertsonak parte hartu zuten, maiatzaren 28an, 583k. Batzar nagusietan aldiz, 1991an, 582k eman zuten botoa eta aurtengo hauteskundeetan 579k.

Aipatzekoak dira udal hauteskundeetara dagokionez, eta


1991eko udal hauteskundeekin alderatuz, EAJk, 46 botu galdu dituela eta HBk 25 irabazi. Zinegotzien banaketa haxe litzateke ondorioz, EAJk 5 zinegotzi eta HBk 2 (10 botorekin HBk 3 zinegotzi eta EAJk 4 izango litzuzke).

Batzar nagusietarako bai EAJk eta baita HBk ere behera egin dute, gainontzekoak gorantza egiten duten bitartean. Hauen artean aipagarri dira, PPK 3 botu izatetik 23 izatera pasatu dela eta IU aldiz, bat bere ez edukizetik 20 izatera.

Batzar nagusiak 1995



1995ko udal hauteskundeak



San Blaseko Ermita

Aranzeta auzoan dagoen San Blaseko Baselizaren erreteila konpontzeko asmoa dago. Denborak eta hezetasunak eraginda, Elgetako beste hainbat basiliza bezala, egoera txarrean aurkitzen da San Blasekoa ere.

Hau dela eta, auzolanean konpontzea erabaki da erreteila; udaletxea, materialen ordainketaz arduratuko da. 1996an, ermita osoa konpontzeko ideia dago, Eusko Jaurlaritzako Auzolandegiak programaren barruan.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Eusko Jaurlaritzatik ohar bat igorri digute, nahi duten elgetarrek, beraien etxeetan, euskaraz ikasten ari den ikasle bat hartzeko aukera dutela esanez.

Ikaslea, hilabetez egongo da familiarekin, uztaila, abuztua eta iraila artean. Trukean, ikasleak 20.000 pta emango dizkio familiari.

Esperientzia interesgarri honi buruzko argibide gehiago, aldizkarian bertan edo Kultura Departamentura deituz lortu daitezke. (Tel: 945-18.94.64).

Edadetuentsako kirol jaiak

Ekainaren 9an eta Deba Baitarako Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, edadetuentsako jaiak ospatuko da Elgetan. Ekintzak polikiroldegian burutuko dira eta helburua, kirol zaletasuna indartzea izango da, jai giroan murgilduta.

Arratsaldean 3retatik aurrera kirol ekintzak egongo dira; 5:30etan opari banaketa eta luntxa. Amaiera emateko egun honi, dantzaldia egingo da. Edozein jubilatuk hartu dezake parte eta izen emateko epea, ekainaren 5ean bukatuko da. Partaide guztiek jasoko dute opari bat.

**GORROTXATEGI
HARATEGIA**

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

Zer pentzatzaten jatzu asentzioko proiektua?



**Aitor Garcia
Tabernarixa (21 urte)**

Ba, neri gaizki pentsatzen jata zegaikitik Asentzio nahiko ondo dago dagon moduan. Gauza batzuk aldatu baiña ez danak. Elgetarako nahiko ondo dago Asentzio eta proiektua geixegi pentsatzen jata.



**Agurtzane Iribar
Irakaslea (22 urte)**

Neretzako piskat galdu eingo eban Asentziok. Gehixen bat turismo-rako, jentandako prestatuko zan. Neretzako hobeto dago oin dagon moduan.



**Ana Mari Gallastegi
Dendarixa (37 urte)**

Ez dot ondo eza-gutzen baiña larregi pentsatzen jata. Elgetarako ondo dago dagon moduan. Bestela gauza asko aldatzen dira ziharo eta kaltia be eiten da batzuei. Ez dago ondo



**Juan Markiegi (66urte)
Periodiko saltzailea**

Han ein dittuen gauzak neri ondo pentsatzen jataz, Elgetako asuntuan. Gero maixekin eta asadoriekin eta jentiantzako lekua, hori ondo dago.



**Xabat Leanizbarrutia
Bihargiña (23 urte)**

Herri txiki baterako ondo etortzen da, kanpoko jentia ekarriko luken proiektu bat edo montatzia. Horrek, herrikuak izanda guria dana erabiltzeko posibilitadeik ez izatia esangura dau.



**Genma Izagirre
Etxekoandrea(30urte)**

Nire dudak dauzkat, alde onak eta txarrak dittu. Onak, mejora danak dia eta txarrak akaso hor inplikatura dagon jentiantzat ez da aiñ ona.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

VIVO
JANARI DENDA

**M^a JESUS
ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

Elgeta: Kultur Etxean, Hies Ekimenari buruzko erakusketa irekiko da ekainaren 13an.

Ekainaren 14 eta 15ean, Hies ekimenaren programa barruan, Hitzaldi bat egongo da arratsaldeko 7etan (14) eta ekainaren 15ean pelikula bat eskeiniko da.

Ekainaren 16an eta arratsaldeko 7eta kultur etxean, India, Kachemirari buruzko filminak eskeiniko dira.

Ekainaren 22 eta 28an Bergarako Musika Eskolako Irakasleen kontzertua egongo da.

Ekainaren 10 eta 24 an, Jaunartzeak eta Sendotzak egingo dira Elgetako Parrokian.

Arrasate: Ekainaren 11n Euskaldunon Egunkariak antolatutako jaia ospatuko da. Oskorri, Eskixu, E.H. Sukarra, Mikel Markez eta Bittor Aiape. Bertsolariak: Sarasua, Lazkano, Egaña, Iturriaga, Estitxu Arozena eta Elorza.



M^a ASUN AGIRRE DENDARIXA

- Noiztik lan honetan? 27 urte.
- Dendarixa ez baziña zer guztatuko jatzun izatea? Enfermeria.
- Gizonak etortzen dira eroatera? Bai asko.
- *Erosle* ala *Baltxongua*? Baltxongua.
- *Ametsik eitten dozu*? Gutxitan.
- *Egin dozun azken bidaia*? Frantziara.
- *Eta egin dozun bidairik politena*? Noruegara eta Finlandiara, politena eta interesgarriena.
- *Zer eroango ziñuke isla batera*? Liburu bat.
- *Ikusi dozun azken pelikulia? eta gustokuena*? *Estallido*, askotan joan arren ez naiz gogoratzen.
- *Mutil bat ikustian zertan fijatzen zara*? Danian, konjunto guztixan.
- *Ligatzeko ohiturak aldatu dira*? Ni lehenguekin gogoratzen naiz eta orainguak pasa dira baina esaten dabe neskak ligatzenbela gehixago.
- *Joango zinake *Lo que necesitas es amor-era**? Ezta pentzau be!
- *Etortzen jatzuz andra-gizonak barruak uster*? Bai, noizian behin bai, penak eta pozak eta disgustotxuak kontatzera.
- *Biziorik*? Biajatzia.
- *Drogak (kanabisa, porruak...)* legezkatuko zinuez? Batzuk bai, hobeto izango litzake libre utzi ezker.
- *Soldaduzkarako sasoi*an dagoen gazte bati zer esango otzasun? Ahal badau soldauskatik libratzeko.
- *Zer pentsatzen jatzu intsumisioa*? Berak hori ideioi ondobadauka eta klaru, ondo.
- *Bizitarako lema*? Ahal daben patxadarekin hartu eta ahal danik alegrien bizi.
- *Desio bat*? Biaje eder batera joan, Japoniara joango nintzake.
- *Zer falta da Elgetan*? Falta gauza asko, pizina, zinea...

Horroroskopoa

♈ Aries: Etxeko lanak egiteak ez dau zahartzaroa ekartzen, lagundu AMARI!

♌ Leo: Esaten najuan nik, espezialak zariela... laga alde guztietan protagonista izateari

♊ Sagitarius: Notizia entzutearekin batera bota duan arnaz hotsa ez dok makala izan.

♉ Taurus: Ortuak kriston kalabaza pilloa eta zuek "etxeko seme alabak" gehiago ekartzen.

♍ Virgo: ¡ Oye mi amor tengo que hablar contigo! ez dakizue euskeraz kantatzen.

♐ Capricornius: Jarraitu horrela, ta gauza asko egingo dittuk bizitzan. Ezin hobek zarie.

♊ Geminis: Horrela etiopiarrek baino beltzagoa geratu bihar haiz. Kontuz eguzkiarekin

♎ Libra: Eguraldi onarekin batera, bizikletan gogor hasi haiz, Girora hoa?

♒ Acuaris: Txikitak ez huen jolastu eta orain jubilaue ta gero umiak baino okerrago?

♋ Cancer: Usteak erdi ustel, baina zuen kasuan ez da hori gertatzen.

♏ Escorpio: Oporrak datozen letxe martxa berdinean jatozan okerrak.

♓ Piscis: Ez dotzan "bic"i negozio handirik egiten idazteak ez jon kalterik sortzen.

ER HARATEGIA ASTI

San Roke 6
Tel: 768168.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

M^a Karmen Lenzeria

Lenzeria eta kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.
Tel: 78 90 40

AINHOA AGIRREAZALDEGI: "EMAKU-MEZKO BERTSOLARIAK BETIDANIK EGON DIRA"

Medikuntza ikasteko itzaropena duen bergatar gazte hau kasualitatez hasi zen bertso munduan. Gaur egun hainbat sari irabazi ditu, "denak merezi ez arren". Azken-aldian telebistari uko egin dio gauza interesgarriagoak egiteko asmoz. Futbola, beste hainbat pertsonak bezala, gizartearen opioa dela dio.

- Nola sartu zinen bertso munduan?

Nire aita betidanik izan da oso bertsozalea, orduan, Bergarara bizitzera etorri ginenean bertso eskola bat zegoela enteratu ginen eta pixkanaka-pixkanaka bertsoan hasi nintzen.

- Noiz igo zinen lehenengo aldiz tablau batera?

Ez nahiz oso ongi gogoratzen tablaura lehenengo aldiz igo nuen momentu hartaz. Uste dut herriko jai batzuetan izan zela ikasitako bertso batzuk kantatuz. Sehaski ez nahiz gogoratzen noiz eta non izan zen.

- Zer sentitzen da taula gainean hainbeste jende zuk zer egingo itzaroten zaudenean?

Beldur handiena norberaren buruari erantzutean dago. Jendeari erantzutea baino garrantzitsuagoa, norberaren buruari erantzutea da. Hori lortzen bada jendeari erantzutea lortzen duzu. Beste arazo bat da jendeak zuek esperatu duena, normalean ahal duzuna baino gehiago eskatzen baitu.

- Zein arrazoiengaitik kritikatu du Bertso Elkarteak Euskal Telebistako saio berria?

Denok dakigun bezala orain arte "Hitzetik Hortzera" programa emititzen zuen ETBk. Programa hau ekainean bukatu ondoren beste bat egitea erabaki zen. Bertan, Bertso Elkarteak arau batzuk errespetatzea eskatzen zuen. Bertsoak kontestutik kanpo ez emateko bertsolaritzaren ikuspuntu oker bat emateko Bertso Elkartearen ustez, hоек, bertsolaritzaren ikuspuntu oker bat ematen baitute. Ondorioz ETBk lehengo programetan emititutako bertsoak errepikatzen ari da.

- Zer gertatu zen Joserra Garziak egin zuen programa berezian?

Iratxe, Elorza, Lujanbio eta Iturriagak gidoi bat aurkeztu zuten. Gidoi horretan, bertsoak ze motatakoak izango ziren, pintadak agertu-

ko zirela eta beste hainbat gauza argi eta garbi adierazita zeuden. ETBk ez zuen inongo galderarik egin eta ondoren pintadak agertu zirenean saioa moztea erabaki zuten. Hor ikusten da nolako adierazpen askatasuna dagoen komunikabide batzuetan.

- Xenpelar sarian kritikatu izan zinen, zergaitik?

Epai leek Xenpelar sariko azken emaitzak eman zituztenean eta ni garaile nintzela ikusi

nuenean harrিতa geratu nintzen; orduan irabazle izan behar zuenari eskeini nion. Ez zen beste ezer gertatu.

- Txapelak burua berotzen al du?

Ez. Gehienez epeldu egiten du. Egia da txapelak poz handia ematen duela, baina denok dakigu edozein momentutan beste norbaiten kendu diezakegula txapela.

Beldur handiena norberaren buruari erantzutean dago. Jendeari erantzutea baino garrantzitsuagoa norberaren buruari erantzutea da, hori lortzen bada jendeari erantzutea lortzen duzu.



Ainhoa Agirreazaldegi elkarrizketako une batean.

- Zergaitik uste duzu egon dela bertso munduan neska bertsolarien gorakada?

Emakumezko bertsolariak betidanik egon dira. Arazoa orain arte gizarte matxista batean bizi izan gara eta ondorioz izugarritzko "juergak" botatzen zituzten, emakumeak alde batera utziz, horregaitik emakumeak bere ohiturak aldatu behar izan ditu bertsotan egiteko. Bestalde emakume bertsolarien agerpenak, gizarteko hutsune baten betetzea ekarri du.

- Ez al duzu uste azken aldiko bertsolaritzaren gorakada honek jendea nazkatu dezakeela?

Bai. Orain dela bi urte eman zen "boom" hori gaur egun ez dago. Saio batean 500 pertsona egotetik 2000 pertsonetara pasatu zen. Gauzak bere onera etorri dira berriz azkenaldian, "boom" horrek kalte egiten baitzion bertsolaritzari.

- Zergaitik agertzen dira beti plazetan "eliteko" bertsolariak?

Honen erantzuna, antolatzailerak daukate. Beraien helburua jendea erakartzea da eta gehien erakartzen dutenak "elitekoak" dira.



"Tablauan kantatu nituen lehen bertsoak ikasiak ziren.

Dena den, Bertsolari Elkarteak saiatzen dira bertsolari haundiak ez direnak bertso saioetara eramaten.

- Txapelketak beharrezkoak al dira?

Nik ezetz uste dut. Andoni Egañak esaten zuen bezala, gaur egun txapelketak ez daukate lehen

zuten funtzio bera. Orain arte egin diren gauza guztiak entzulearen mesederako izan dira eta bada garaia bertsolarien mesederako zer-bait egiteko. Beraz, aurkezteko gogorik ez duenak ez dauka zertan aurkeztu beharrik.

Gaur egun bertso txapelketak ez dute lehen zuten funtzio berbera.



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

MOTZIAN

- Zein bertsolari miresten duzu? Andoni Egaña.
- Norekin joango zinateke afaltzera? Bertsolari askorekin.
- Guapoena? Fisikoari ez diot garrantzirik ematen.
- Ze ordutan oheratzen zara larunbat gauetan? Gauaren araberako kontua da hori.
- Diskotekara joaten al zara? Ez.
- Zein da zure oinetakoaren zenbakia? 37
- Zer datorkizu burura "intsumisioa" entzutean? Herri honen eskubide bat. Norberaren aukera bat.
- Horoskopoak irakurtzen al dituzu? Parean tokatuz gero bai.
- Ze koloretakoa da zure pijama? Berdea.
- Bota dizuten lorarik lotsagarriena? Neska izatearren esaten direnak.
- Medikuairengana joan zinen azken aldia, zein arrazoiengandik? Okulistarengana. Askotan joaten naiz.

Definitu hitz batzukin:

Julen Gerrero: Futbolean egiten duen gazte bat. Ez dut asko jarraitzen.

Aznar: Hizketarako erretzasun handia daukan pertsona bat. Engainatzen oso ondo dakiena.

Concha Velasco: Ez dut jarraitzen; ez aktore bezala ezta aurkezle gisan.

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salbador 3
Tel: 768093

Fernando
Ojanguren

M^a Jesus
Mujika

ASMAKIZUNAK

Momentuan bi ditu eta orduan bat ere ez, zer da?

Txikitan lau hankatan, geroago bitan eta azkenean hirutan zer da?

Zer egiten du behi batek eguzkitan?

MUTIKO PAREA

Baziren bi mutiko gaiztoak zirenak. Herri txiki batetan bizi ziren, itsasondotan. Beti elkarrekin ibiltzen ziren eta gainera sua eta gauza arrisksuekin. Beti neskei jotzen eta bidaltzen. Beste behin, kanean txakur zahar abandonatu bat aurkitu zuten eta alboan alkohola eta txiskeroa. Txakur zaharra

erabat aulduta zegoen eta erraz harrapatu zuten. Ipurdian bota alkohola eta sua eman zioten. Haiak bai txakurraren kurriskak. hurrengo egunean kale bazterrean zegoen akaturik. Beste batean, hartu zituzten zabor batzuk pilatu eta sua eman zioten baso bazterrean. Lehorra zegoenez denak hartu zuen

su, bonberoak etorri behar izan ziren eta ikusi zuten zein arriskutsua zen. Ordutik aurrera ez zuten surik erabili eta barkamena eskatzen ibili ziren.

Igor

TXISTEAK

- Zenbat zero ditu miloi batek?
- Sei.
- Eta miloi erdik?
- Hiru.

Bazeuden ba, bi lagun bata euskalduna ta bestea gailegoa. Biak ehizean zebiltzan uxu puesto batean. Bapatean uxu bat pasatzen da eta:

- Lumatu! Lumatu! - Dio gailegoak zeharo entusiasmaturik.

- Bai zera! Lumatu aurretik hil egin beharko duzu ba? - Dio euskaldunak.

Saioa

BERTSOTAN

BIZITZARI BERTSOA
NAHI DIOT KANTATU
JAIO GINEN TA ORAIN
DEZAGUN MAITATU
ZORAGARRIA BAIT DA
EZIN DA UKATU
ETA GUK BERE ALDE
NAHI DUGU JOKATU.

Itxaso

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK
Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta




IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3

JOXE FELIPEREN KOTXEA

Behin bazen Joxe Felipe izeneko mutil gazte bat. Joxe Feliperi karreretako kotxeak gustatzen zitzaizkion. Beraren desioa handitan karreretako kotxe bat



edukitzea zen eta karreretan parte hartzea. Oraindik txikia zenez, ez zuen kotxerik, baina, handiagoa egin zenean kotxea gidatzeko karneta atera zuen eta aitak karreretako kotxea erosi zion.



Joxe Felipe gero karreretan parte hartzen hasi zen. Oraindik ez zuen karrerarik irabazten baina geroago karrerak irabazten zituen eta bere familia oso pozik zegoen berekin. Horrela kopa mordoak irabazten zituen eta etxe guztia kopaz beteta zuen, baina koparik garrantzitsuena 1986ko apirilaren 18an irabazi zuen, munduko kopa zen eta gainera beste kotxe bat eman zioten.

Mikel

Asmakizunen erantzunak: m, gizona, itzala.

LEHIAKETA

Aurreko hilabeteko argazkia zailagoa izango zela uste bagenuen ere, karta asko jaso ditugu erantzun zuzenarekin. Zuek asmatzeko ipini genuen txokoa, Elorrio bidean aurkitzen da, mugara heldu baino lehen. Elgetan, Lehenengo erreka izenaz ezagutzen dugu.

Onditx Villak jasoko du Elgetako Gazte Asanbladak oparitutako kamiseta. **Besteok animo!** Hurrengoan zu izan zintezke, **IDATZI.**

Oraingoan, argazkian dagoen pertsonaiaren izen-abizenek gain, zein ofizio duen jakin nahi genuke.

Erantzuna badakizu, bidali postal edo kartaz *Goibeokalera*.

Buzoira bota eta itxaron hurrengo aleari irabazlea izan zaren jakiteko.

Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

HELDU DA GARAIA

Pixkanaka-pixkanaka lehian geratzen diren pilotariak gutxiagotuz doaz 4'terdiko txapelketan. Orain arte txapelketan geratzen diren bi elgetarrek izan dituzten emaitzetan ikusi daitekeenez, "benetako txapelketa" haste- ar dago.

Ubera anaiek hilabete honetan jokatu dituzten partiduetan ez dute inongo arazorik izan beraienn aurkakoak gainditzeko. Ubera I.ak Arrutiren aurka jokatu zuen lehen partidua. Bertan, nahiz eta 22-6 irabazi, oso gaizki jokatu zuen. Antzerako zerbait gertatu da Larralde eta Monrreal Gazteiz- tarraren aurka jokatu dituen hurrengo partiduetan. Bi edo hiru detaile erakusteaz aparte ez du ezer gehiago egin. Askok hobetu beharko du zerbait egitea nahi badu.

Gutziz alderantzizkoa da Xabierren kasua. Honek aurkako izan dituen pelotari guztiei nor den erakutsi die. Bai Gauna gazteiztarraren aurka eta baita Beitiaren (Zornotza) aurka izugar- ritzko indarra erakutsi du. Lehenari 18-4 irabazi zion inongo historiari izan ez zuen partiduan. Beitiaren aurka berriz, nahiz eta oso ondo hasi, partidu erdialdera urduritasunaren poderioz huts batzuk egin zituen. Gerorako, erre- akzionatu eta 18-8ko emaitzaz garaile atera zen. Badirudi zerbait garrantzitsua egiteko moduan dagoela aurtengo txapelketan.

Aipatzekoa da baita ere, 4'terdiko txapelketarekin tarteka- tuz, maiatzak 26an ospatu zen jaialdi berezia. Jaialdi hau Elorrioko ikastolaren alde izan zen

eta bertan Ansola eta Esnaolak, Irazola eta Olidenen aurka neurtu zituzten indarrak. Beteranoek, izu- garrizko maila erakutsi zuten denetan nabarmenena Esnaola izan zelarik. Nahiz eta emaitza gutxienekoa izan, esan, Irazola eta Olidene- k 22-21 irabazi zutela, bai- na txalo gehienak Ansola eta Esnaolarentzat izan ziren.

"Cuenca del Deba"

Elgetako txapelketan ez bezala, "Cuenca del Deba"n Aitor Ubera kaleratua izan da. Semifinaletako joaneko partiduan 22-15eko emaitzaz atera ziren garaile. Itzulikoan berriz, 12an geratu ondoren kaleratuak izan dira. Porrotaren zergaitia partidu asko jarraian jokatzean egon dela diote adituek.

Ubera I.ak huts egin badu ere, ezin dugu berdina esan Ubera II.az. Xabier eta Sendino Abadinotarrak osatutako bikoteak bai joaneko eta bai itzuliko parti- duetan, erraz garaitu zituzten an- tzuolarrak eta finalean sartzea lor- tu dute. Finala eibartarren aurka izango da. Animo pareja!

Aitor Uberak Solozabalen aurka galdu du 4 t'erdiko txapel- ketan. Azken emaitza 22 eta 8koa izan zen. Urrengo alean emango dizuegu partidu honen berri.

Oskar Askasibar garaile Balmasedan

Oskar Askasibarrek afi- zionatu mailako lehen garaipena lortu zuen "III Trofeo Ciudad del Mueble" lasterketan. Balmasedan egin zen karrera honek 105 kilo- metro izan zituen eta Lehendakari Txapelketarako baliogarria izan zen.

Oskarrek, beste zenbait txirringularirekin batera 35. kilo- metroan aldegin zuen. Talde honetan, besteak beste, bere talde- kide den Gorka Elkorobarrutia, Jorge Alonso eta Alex Garcia (Ripolin), Javier Fernandez (Caja Rural), Xabier Velasco eta Ruben Fustel (Lekeitalde) eta Zorrilla eta Gisasola independienteak zihoa- zen. Hauen lan bikainari esker denbora areagotzen joan ziren, hiru minututako alde lortu arte. Atzean, ez zegoen inongo intere- sik aurrekoak harrapatzeko, talde nagusiek txirringulariak baitzi- tuzten ihesaldian eta ezin izan zituzten aurrekoak harrapatu. Aurrean, Askasibarrek ez zuen inongo arazorik izan sprinta ira- bazteko.

XI. Euskadiko Mendi Kriteriuna

Urtero bezala, Uztailaren 1ean, Euskadiko mendi kriteriuna- ren XI edizioa ospatuko da. Elgetako Txirringulari Elkarteak antolatutako laisterketa honetara, Euskadi mailan dauden talde guz- tiak etortzeaz gain, estatu mailako talderik onenak parte hartuko dute. Lazterketa 3:30etan hasiko da eta 7:00rak aldera bukatu.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

ALDI DENDA

(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

FUTBITO: FINALERDIEN ATARIAN

Futbito txapelketako lehen fasea bukatu da eta heldu de balorazioa egiteko garaia. Lehenik eta behin aipatu aurtengo txapelketan arbitroen inguruan izan diren tira-birak. Epaileek akats ugari egin dituzte, baina hori normala da dagoen maila ikusirik. Honek ez du esan nahi izan diren akats batzuk barkaezinak direnik (txapelako epaileak Urien eta H.H.H. jokatu zuten partiduan egin zuen bezalako), baina onartezina da talde batzuk izan duten jokaera arbitratzeko orduan. Talde batzuk (Heskeidak "A", Heskeidak "B", H. H. H.) ganora gabe ibili dira txapelketa osoan axolagabekeri izugarria erakutsiz: partidua ordu erdiko atzerapenez hasi, emaitzak apuntatzeko paperak lurrean botata utzi... guzti honek zigortua egon behar luke.

"Pasotismo" guzti honetan kanpoko taldeak nabarmendu dira gehien (eta hori teoriarik gabeko bat egiten zaiela beraiei Elgetan jokatzeko utzita) eta batez ere Heskeidak "A"-koak. Azken ihardunaldian ez

aurkezteaz gain ekipoko jokalaririk ukatu egin zen tokatzen zitzaien partidua pitatzera. Gauzak daudenetan, eta eduki duten portaera ikusita ondorio batzuk hartu beharko dira hurrengo urteetan egoera berdina errepika ez dadin.

Azken ihardunaldiari dagokionez, esan, lehen partiduan Zeleta eta H. H. H. izan genituela aurrez-aurre. Zeletakoak Urieni irabazi ondoren moral handiarekin zeuden eta hori argi eta garbi geratu zen hasiera hasieratik. Nahiz eta partidua parekatua izan Zeletakoek beti izan zuten partiduen kontrola eta azkenean 2 eta 0 nagusitu ziren, H. H. H. taldekoei azken postura bidaliz.

partidua Patxi eta Heskeidak "A" jokatu beharrekoa zen baina lehen aipatutako arrazoiarengaitik ez zen jokatu (1-0 Patxikoentzat). Arratsaldeko azken partidua Heskeidak "B" eta Txapelak jokatu zuten. Partidu hau lasaitasun osoz hartu zuten bi taldeek eta lehen zati parekatu baten ondoren, bigarren zatian durangarrek beraien nagusitasuna erakutsi zuten 4 eta 2ko emaitzaz irabaziz.



H.H.H.-koek ezin izan zuten Zeletaren aurkako partidua Bigarren garrantzitsua irabazi.

NAGUSIAK	J	I	B	G	P
HESKEITAK "B"	12	10	1	1	21
TXAPELA	12	8	1	3	17
HESKEITAK "A"	12	6	1	5	13
URIEN	12	6	1	5	13
PATXI T.	12	5	1	6	11
ZELETA	12	3	1	8	7
H.H.H.	12	2	0	10	4

GOLEATZAILEAK

H. Gallastegi (txapela) 28
 A. Ubera (txapela) 12
 Pingi (urien) 11
 Patxi (urien) 11

s a i l k a p e n a k

NESKAK eta GAZTEAK	J	I	B	G	P
ANA LIBU. GAZTIAK JOIXON BERTAN	6	6	0	0	12
	6	2	0	4	4
	6	1	0	5	2

GOLEATZAILEAK

Aritz (Ana Mari) 16
 Iraitz (Ana Mari) 11
 Eneritz (gaztiak) 8

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
 Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24
 Tel: 76 82 06

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
 San Roke 2 .Tel: 768151

IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga
 Tel: 768072
 Salbador zeharbidea 2
 ELGETA

MALA LETXIAN

Alfabetatzeko premi-
ñaik ez daukazuen danok
enterau zaittezien, oinguan
Elgetako euskeraz eskribitze-
ko esan doste eta horrenbes-
terako be banaizenez eskribi-
duko dot (parkatu baina
"eskribitukot" ezta mala le-
txian be ezin dot eskribitu).

Nondik nora noian
garbi lagatzeko, hasieratik
esan bihar dot (zegaitxik ez
biot), iñuzentekerixia pen-
tsatzen jatala hola ibiltzia,
hizkuntziaz begiratuta diñot.
Ez dakit zegaitxik entendidu
bihar daben iñok hau bestela-
kuak baiño errezau baiña
pasau jakuzen danak pasau
ta gero igual honetan be ez
daukau errasoirk eta egixa
izango da hau errezau enten-
ditzen dala.

Besteren batek pen-
tsau dau honezkero erderaz-
kuak larrei erabiltzen ditud-
dazela, baina Elgetako
Elgetakua erabiltzeko horrek
be erabili ein bihar, ez ahaztu
eibartarrak banda munizipa-
la por delante eta pueblo
soberanua atzian ibiltzen zia-
la (baiña harek be ez zian

ziharo euskaldunak ezta?).

Beno hizkuntzian gau-
za honek alde batera lagata
hasi gaittezen esan biharre-
kuekin. Azkenengo aldizkari-
xan oso gauza barregarrixa
agertzen da: sei elgetarrei
botau bihar daben pregunta-
tzen dotse, eta politikan kon-
fiantzaik daken eta honetatik
lauk bota bihar dabela diñue,
beste batek igual baietz, eta
bestiak ezetz; eta iñok be ez
dauka kofiantzaik politi-
kan. Danak diñue inddu edo
prometitu danak eitten dabe-
la, baina gero...aja!
Batzurentzat lapurrak dira
beste batzurentzat danak bar-
din, edo euren interesengatik
eitten dabe eitten dabena edo
bakotxak nahi dabena eitten
dau, edo ez dabe ezer ein edo
ez dauka bape konfiantzaik.
Hala ta be, botatzeko asmua,
lauk garbi, bosgarrenak igual
bai, eta bakarrak ezetz.

Hau argitaratu orduko
bai "jentrebistatuak" eta bai
bestiok egin dogu danok ein
biharreku, eta susmua dau-
kat gehixenok konforme
zagoziela politikan konfian-

tzaik ez eukitze horrekin eta
hala ta be botau ein dozuela.

Orduan zein da kon-
klusioña: politiko danak dira
txarrak, ala neriak ez beste
danak? Ez dago nere politi-
koik eta danak martzianoak
dira? (Zabale Jupiterren edo,
egongo litzake). Gutxi batzuk
dira txarrak, baiña nik auke-
ratutakuak onak dira? (zorio-
nez ez dauke sekula be txar-
rak izateko aukerarik ez
dabelako piperrrik be ain-
tzen).

Pentsau, pentsau eta
kontestau; aspaldixan desia-
tzen nago eta, baten batekin
saltsan sartzeko.

Jabier Aranzeta

HAIZEA
TABERNA

Salbador 5

Tel: 768256

ELGETA



METALEN
SALEROSKETA

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7
Telf-Faxa: 768064 Elgeta



Argazkia: Pilar Ruiz de Eguino.

Asentzio egun baten.


Argazki hau, orain dela 26 edo 27 urte aterata dago. Egun handia izaten zen Asentzio eguna.

Angiozarkoak eta Elgetakoak elkarrekin ospatzen zuten egun hau. Aurten EGAK jaiegun hau berreskureatzeko ahaleginak egin ditu eta herri guztiak ondo hartu duen ekintza izan da; egutegian gorritz dauden egunak gero eta gutxiago baitira eta horrelako ekintzek herria bizirik dagoela erakusten baitute.

Erretratuko izenak: **Goiko lerroanezkerretik eskubira:** Pedro Mendikute, Jose Felix Larrañaga, Iñaki Arrota, M^a Luz Bolinaga, Fernando Larrañaga, Irene Gorrotxategi, Jose Luis, Ester Elorza, Isabel Elorza, Begoña Aranzabal eta Mertxe Mendikute.

Erdiko lerroan ezkerretik eskubira: Nikolasa Larrañaga, Ambrosia Elorza, Josepa Miraballeskoa, Pilar Egizabal eta Dionisio Bolinaga.

Behoko lerroan ezkerretik eskubira: Roberto Larrañaga, Iñigo Arrotakoa, Jarikotxoko Fernando, Jose Luis Egizabal eta Jose Agustin Gorrotxategi (atzean), Sebastian Zabaleta, Ezezaguna, Amagoia Irazabal.



Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatuak.

BISITA GAITZAZU, ZURE ESANETARA GAUDE!



ELGETA HOTELEAN egonaldi atseginak
izango dituzu
ELGETA HOTELEAN eskaintzen ditugun
zerbitzuak:

- Taberna-kafetegia
- Jatetxea
- Bista bikaineko logela
- Enpresa bileretarakogela aproposak

ELGETA HOTELEKO jatetxean:

- Eguneko menua
- Negozio eta enpresa bazkariak
- Familiarteko giroa



San Roke 26 Tel: 78 91 07 Faxe: 78 91 06 20690 ELGETA